

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 24a / 497. zenbakia

ESKUBALOIKO SENIORRAK



MAILAZ IGO DIRA!

IGERILEKUAK: UDAN EZ DA TABERNARIK EGONGO/6 • KULTURA: LITERATURA SARIAK, BIHAR/10

ARANZADI IKASTOLAREN 30. URTEURRENA

Maiatzaren 24an, ostirala

- Leintz bailarako eskolarteko bertsolari txapelketa



Ekainaren 21ean, ostirala

- Jaialdi mundiala herriko pilotalekuan arratsaldeko 6:30ean



Ekainaren 23an, igandea
IKASTOLA EGUNA

- Jolasak
- Afari-merienda
- San Juan sua



ARANZADI
IKASTOLA



HERRI ONURAKO
IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA



ATREBENTZIAEZPADA/ Zein iritzi daukazu Ibargarain jarri daben palmonduaren gaiñian?




GARBIÑE ZAPIAIN
31 urte



FELIX IGNACIO
45 urte



ANTONIO PARDINA
75 urte



JOSEBA LAMARIANO
40 urte



BEGOÑA MADARIAGA
59 urte



MARI KARMEN AZPIRI
73 urte

Ba, egia esateko ez naiz kon-turatu. Ez dot ikusi, inguruan bizi naizen arren. Hala be, ez jat gaizki pentsatzen. Ibargarai politta geratzen dabil eta ondo dago holako zuhaitzak jartzia.

Ez dakit. Palmonduak nik uste dot tokiz kanpo dagozela Bergara moduko herri baten. Mediterraneo aldi-eta ondo geratzen die, baiña hemen... Ez nau konbentzitzen.

Traban ez dagon bittar-tian... Gauza polittak beti datoz ondo, edozein toki-ttan ipinita be. Niri gus-tatzen jat. Ikusi egin bihar zabalitzen dabenian ze moduz geratzen dan.

Ez ondo eta ez gaizki. Zata-rra ez da geratzen, baiña palmondua ez da hemengo arbolia eta, nire ustez, ez da aproposena. Kostaldian hobeto ikusten dot Berga-ra baten baiño.

Gustatzen jat zela geratu dan. Desberdiña, behintzat, bada eta Ibargarai kaliari beste toke bat emoten dotsa. Inguruan bizi garenez, gai-ñera, politta geratzen dago kalia.

Ez dot entenditzen gehiegi, baiña jardiña eta palmon-dua gustatzen jat. Gu hemen bizi izan giñan hau dana ortua zanian, eta oin, Ibargarai kalia oso elegan-te geratzen dabil.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ENTRETENIMENDU BERRIA Norbaitek, behintzat, badi-rudi denbora pasatzeko modu berria aurkitu duela Poligono aldean. Duela bi aste, Boni Laskurain kalean hainbat zuhaitzi azal zatiak kendu zizkieten eta joan den asteburuan, A. Fleming kalean bost zuhaitz, gaztetxoak oraindik, apurtu egin dituzte. Zeregin hoberik ez ote dugu, ba, izango? /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /7

KIROLAK /9

KULTURA /10

Obusa Oxirondo plazan

Oxirondo plazako lanetan ari zirela Gerra Zibileko obusa aurkitu zuten, egubakoi-tzean, lur azpian.

Eskubaloi taldea igo da

Senior eskubaloi taldea 2. maila nazionalera igo da. Zapatuan az-ken partidua izan-go du Kiroldegian.

Literatur lehiaketa

Koldo Eleizalde literatur lehiake-tako sari banaketa izango da zapatu eguerdian Zabalo-tegiko aretoan.

ASTEKO DATUA

75

PAZKOETAN KALEAN JARRI ZITUZTEN POSTUAK

Beste urte batzuetan baino sal-menta postu gehiago egon dira aurtengo Mendekosteetan. Udal-tzaingoko iturrien esanetan, 75. Gehienak, Fraiskozurin eta Ira-la kalean.

BESTE EKESANA

“Azken urte honetan, Urrezko Q-a lortzeko jarraitu dugun prozesua koordinatzea tokatu zait, eta baita gestio memoria egitea ere. Memoria honetan gestioa prozesu bidez ezartzea aztertzen da batik bat, nahiz eta sistemaren oinarria 1994an finkatu zen. Gestioa prozesu bidez lantzean helburu garbia lortu nahi da: gestioaren hobekuntza, eta sistematizatu egin da egosketa negoziazioan. Nire ustez, oso prozesu exigentea izan arren baliagarria iruditzen zait, etengabe-ko hobekuntza lortzeko bidean jartzen baikaitu. Gainera, langileak prozesuaren parte sentitu direla uste dut, “lanean jarraitzera animatzen zaitu” eta antzekoak entzun baititut beraien artean, eta hori oso baliagarria iruditu zait.

MIREN BERASATEGI
‘TU lankide’/2002ko apirila

BERAIEK DINOE/ Mikel Elkoroberezibar



Ondo hezitako oinordekoak

Espainiako gobernuak kendu ditu orain arte gordetzen zituen mozorro guztiak eta oraingoan gordinki erakutsi du bere aurpegi faxista. Franco hil ondorengo urteak joku bat besterik ez dira izan betiko espainiar faxistentzat, gaur egun, duela 40 urte moduan, berdinek agintzen baitute espainiar estatuan, begiratu besterik ez dago Francorekin agintzen zuten izenak, eta gaur boterean daudene-nak. Guztiek dute aita, aitona edo osabaren bat Francoren garaian agintean zeudenak.

25 urte hauetan estatutuare-kin espainia “una y unida”, arriskuan ez zela ikusi dute, baina kotxe ofizial eta bulegoen berotasunetik kanpo abertzale askok egindako lanari esker, estatutua alde batera laga, eta beste kontsenso bat lortzeko ordua dela barneratu dute EHko hainbat sektorek. Horrekin “una, grande y unida”ren jarraitzaileek

arriskuan ikusten dute euren sasidemokrazia eta kontsenso minimo posible hori apurtzeko ahalegin guztiak egingo dituzte. Oraingoan Batasunari tokatuko zaio espainiar neofa-xisten eraso jasatea eta martxan dago euren makinaria guztia Batasuna legez kanpo uzteko. Argi ikusi baitute EHN badago-ela gogoa eta beha-rra gauzak aldatze-ko. Baina txikitatik oheratzerako orduan Francoren historia miresgarriak entzun dituztenentzat, demokrazia izena bera ilegalizatze-ko bidean dago. Horren

aurrean gainerako alderdi eta eragile guztien artean akordio minimo batzuk gauzatzea ezinbestekoa da, zeren orain Batasuna ilegalizatuko dute, baina etorkizunean, nor izango da espainiar neofaxisten frustra-zioak ordainduko dituena? No-ren edo zeren aurka joko dute? Oroituko duzue Francore-kin euskara, ikastolak, ikurri-ña, euskarazko medioak... ile-galak ziren eta txikitzen gauza bat ondo ikasten denean...

“Espainiako gobernuak kendu ditu orain arteko mozorroak eta gordinki erakutsi du bere aurpegi faxista”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 24**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74
- ZAPATUA, 25**
PUY, Barrenkalea 25 943 76 19 63
- DOMEKA, 26**
PUY, Barrenkalea 25 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 27**
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05
- MARTITZENA, 28**
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 29**
MOZOS, San Pedro 4 943 76 12 15
- EGUENA, 30**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liberutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---------------------|---------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| Domekak: | Labegarieta |
| 11:30, 13:00. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | San Lorentzo |
| Lanegunak: 19:15. | Zapatuak: |
| San Pedro | 20:00. |
| Domekak: | Angiozar |
| 09:30, 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak eta | 11:30. |
| lanegunak: 19:00. | Moja |
| Sierbak | Zaharrak |
| Lanegunak: 19:30. | Lanegunak: 8:00. |
| Osintxu | Mizpirualde |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Elosu | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: |
| Ubera | 09:00, 11:30. |
| Domekak: | Zapatuak eta |
| 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| San Juan | Uzarraga |
| Domekak: 11:00. | Domekak: 10:00. |
| Elorregi | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1942AN JAIOTAKOAK
1942an jaiotakoan afaria ekainaren leian Azpeitxi jaietxean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, meza izango da Santa Marinaran. Izenematea (15 euro aldezturik) Mizpildi okindegian, Edel tapiz dendan edo Azpeitxi jaietxean.

1960AN JAIOTAKOAK
1960an jaiotakoan afaria ekainaren leian Torrekua jaietxean, 21:00etan. Izenematea (18 euro aurretik) Kutxan egin daiteke.

1958AN JAIOTAKOAK
1958an jaiotakoan afaria ekainaren 15ean Azpeitxi jaietxean. Izenematea (12 euro) Irrintzi kafetegian.

SAN JOXEPEKO BATZARRA
Eguenean, hilaren 30ean, San Joxepe erretiratuen elkarteke batzar orokorra izango da, 17:00etan.

MENDI IRTEERA
Gorla Alpino eta Pol-Pol taldeek mendi irteera iragarri dute domekarako, hilaren 26rako. Azpiroztik Lizarrustiraino izango da ibilbidea. 08:00etan irtengo dira, frontoitik.

ODOL ATERATZEA
Eguaztenean, hilaren 29an, odol ateratzea izango da, 18:30ean, Seminarioan.

JARDUNENAGENDA

OLINPIADAK
Bihar, zapatua, 9 eta 11 urte bitarteko gaztetxoendako olinpiadak hasiko dira. Hockey partiduak izango dira, arratsaldeko lauretatik aurrera, Seminarioan.

ASTE BUKAERAKO AISIALDIA
Domeka arratsaldean, dantzaldia izango da Kartzelan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jaietxea.

Labegarieta / Olabarretetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTEBERRIGARAN

Xabier Oregi "Panti" preso bergararra, gose greban


Kanarietako Salto del Negro espetxean zegoen Xabier Oregi *Panti* preso bergararren egoerak txarrera egin zuen 1992ko maiatzaren azkenetan. Aurrera eramandako gose grebaren ondorioz, 25 kilo inguru galdu zituen *Panti*-k. Bergaran enkarteladak eta protestaldiak egin zituzten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kertenkerixia"

Kirtenaren ekintza. *-Kuadrilla orrek eztauka kertenkerixia ta jaleua besteik.*



ASTEKOFILMAK

'BLADE 2'

ZUZENDARIA: GUILLERMO DEL TORO. AKTO-REAK: WESLEY SNIPES, KRIS KRISTOFFERSON, NORMAN REEDUS, LEONOR VARELA.

HARIA. Beste banpiro mota bat jaioda. Gizakien eta banpiroen odolarekin asetzen dute euren gosea. *Blade*-k izaki beldurgarri horien aurka borrokatu beharko du...

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'YO SOY SAM'

ZUZENDARIA: JESSIE NELSON. AKTOREAK: SEAN PENN, MICHELLE PFEIFFER, DIANNE WIEST.

HARIA. Aurtengo denboraldiko zineklubeko azken emanaldia. Adimen urritasuna duen gizon bat alabaren zaintzarengatik ari da borrokan epaitegietan, emakumezko abokatu baten laguntzarekin. Sean Penn aktorea Oscarretarako izendatu zuten film honegatik.



TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Eguenean (hilak 30), 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA




Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**
ARETXABAETA



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA





ARTXIBOA

Aurtengo uda izango da kanpoko igerilekuak zabalik dauden azkenekoa.

IGERILEKUAK/Tabernaren ordez edari eta ogitarteko makinak jarriko dituzte

Udan ez da tabernarik egongo Udal Igerilekuetan

MONIKA BELASTEGI

Maiatzaren 28an, itxi egingo dute igerilekuetako taberna. Zerbitzu horren arduradunei eten egin die Udalak kontratua, bi isunen ondoren. Hori horrela, ez dute taberna berri ezleitu; horren ordez, edari eta ogitarteko makinak jarriko dituzte udako denboraldirako.

Bi dira tabernaren ustiaketa lehiaketara ez ateratzeko arrazoiak: batetik, esleipen prozedurak behar duen denbora, kontuan izanda kanpoko igerilekuak irekitze daudela. Bestetik, arduradun berriek tabernarako ekipamenduan egin beharko luketen inbertsioa, kontuan izanik, adjudikazioa epe motzerako izango litzatekeela, edozein modutan uda ondoren itxi egingo baitute, kirolgune berriari ekiteko.

Hori guztia kontuan izanda, maiatzaren 28an itxi egingo dute behin betiko igerilekuetako taberna. Dena dela, edari eta ogitarteko makinak zerbitzua esleitu du Udalak, eta bosten bat makina egongo dira: kafe, freskagarri, izozki, *snack* eta ogitarteko makinak, besteak beste.

Igerilekuetako taberna kanpoko igerilekuak eraiki zituzten garai berekoa da, 1970. urtekoa; hortaz, 32 urte ditu. Handik bi urtera, estali gabeko igerilekuak eraiki zituztenean, beste taberna bat ireki zuten kanpoan; hark zortzi bat urte iraun zuen.

Tabernaren 32 urteotan hainbat lagunek ustiatu dute, batzuek denbora luzeagoz eta beste batzuek gutxiagoz. Azken hamar urtetotan, esaterako, honako hauek ustiatu dute igerilekuetako taberna: Balentin Kalboetxeagak, Josean Olabarriak eta Fer-

nando Ugartek, Tere Buenetxeak, eta azkena Beatriz Errastik.

KANPOKO IGERILEKUEN AZKENEKO UDA
Aurtengoa da kanpoko igerilekuak zabalik egongo diren azkeneko uda. Ekainaren 15ean irekiko dituzte eta irailaren 15ean itxi. Bestalde, ohiko ordutegia izango dute, hau da, 10:00etatik 21:00etara eta irailean ordubete goizago itxiko dute, 20:00etan, hain justu ere.

Behin betiko ixteko arrazoia da kirolgune berria eraikitze lanak laster hasiko direla; litekeena da udazkenean hastea eraiste lanekin. Barruko igerilekuak ere, seguruenik, ez dituzte oporren ondoren irekiko. Udaleko Kirol Zerbitzuetako iturrien esanetan. Hori horrela bada, gimnasioa erabiltzeko aukera egongo dela aurreratu dute eraiste lanekin hasi arte.

Bergarako UNEDek Udako Ikastaroak antolatu ditu

MONIKA BELASTEGI

Hogeita hamabost ikastaro eskainiko dituzte hiru jakintza arlotan banatuta: **Gizarte Zientziak, Filosofia eta Osasuna eta Psikopedagogia**. Ekaineko azken astean eta uztaileko lehenengoan izango dira.

Udako Ikastaro horiek Bergarako UNEDen 25. urteurreneko ospakizunen barruan daude, eta Bergarako UNEDek antolatu ditu Patronatuaren laguntzarekin, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bergarako Udala eta Gipuzkoako Kutxaren laguntzarekin, hain zuzen ere.

Ikastaroak ekainaren azken astean eta uztaileko lehenengoan izango dira, goizez eta arratsaldez, eta guztira hogeita hamabost ikastaro, tailer eta mintegi eskainiko dituzte, hiru ezagutza arlotan banatuta: **Gizarte Zientziak, Filosofia eta Osasuna eta Psikopedagogia**. Hori horrela, besteak beste, honako ikastarok eskainiko dituzte **Gizarte Zientzien** arloan: Kuaternarioa Eukal Herrian; Heriotzaren kultura Debagoienan (XVIII. eta XIX. mendeak); Euskara Justizian; eta Chamanismoa eta Mundu garai-kidea. **Filosofia eta Osasun** arloan, berriz, honako hauek, beste batzuen artean: Marx XXI. mendean; Tai Chi Chuan eta Chi


Kung-era sarrera; Bioenergetika eta Cannabisa: zigorra ala itzulerara erabilera terapeutiko eta errecreatibora?.

Azkenik, **Psikopedagogia** arloan, honako hauek: Euskal emakumeen poesia: gorputz eta arima; Informatika arloko baliabideak eskolako funtzionamenduan, edo Ingurugiro hezkuntzarako jarduera praktikoen tailerra.

NAHI DUTEN GUZTIEN DAKO ZABALIK

Udako ikastaro horien helburua bikoitza da: batetik, etengabeko prestakuntzan, unibertsitateko hedapenean eta gaur egungo arazoan hausnarketan laguntzea; bestetik, hezkuntza eta prestakuntzari eta birziklapen pertsonal eta profesionalari dagozkion ekintzak eskaintzea.

UNEDek eskaintzen duen programak era guztietako pertsonen premia eta interesei erantzutea du helburu, eta ikasle, profesional eta orotariko entzuleei daude irekita. Izena emateko epea ere irekita dago eta ekainaren 8an amaituko da. Izena emateko parte hartze agiria UNEDek berak emango du. Informazioa eta izena ematea UNEDen egin beharko da: San Martin Agirre plaza, 4an; astelehenetik egubakoitzera, 10:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta zapatutan 09:00etatik 13:00etara.



MONIKA BELASTEGI

Idazkaritzan edo info@bergara.uned.es helbidean eskura daiteke informazioa.

UDAKO IKASTARO TRINKOAK: uztailaren 1etik 19ra

**INGELES
FRANTSES
ALEMANA**

- GOIZEZ nahiz ARRATSALDEZ
- Maila eta adin guztiak
- Egunero HIRU edo LAU ORDU
- Matrikula zabalik ekainaren 28ra arte

STONE HOUSE
HIZKUNTZAK

943 76 06 87
Ibargarai 18, behe-3

izeder

**ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak**

943 76 71 05.
Arruriaga 2. BERGARA

Bergaran ere Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia jarriko dute abian


MONIKA BELASTEGI

Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia jarriko dute abian Udalean. Aurten, EAEko hamalau udaletan ekingo diote planari. Plan horren bitartez, herrian euskararen normalizazioan orain arte egindako lana osatu nahi du Bergarako Udalak.

Eusko Legebiltzarrak 1999. urtean onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Plana moldatzeko 10 eredu prestatu zituzten: herrien tamaina eta euskaldunen portzentajea kontuan hartutako ereduak. Egun, 14 udal ari dira euren herrietan euskara biziberritzeko planak diseinatzen; Bergara da horietako bat.

BERGARA, HAMALAU HORIEN ARTEAN

Aipatutako ereduetatik Bergarari C2 ereduak dagokio, hau da, 10.000 biztanletik gorako kopurua eta horietatik %50-70 euskaldunak dituzten herriei dagokien ereduak da hori. Planaren bitartez, herrian euskararen normalizazioan orain arte egindako lana osatu nahi du Udalak. Izan ere, hainbat arlotan garatu ditu eus-




Plan parte hartzailea izateko, harremanetan jarriko da Udala talde eta eragileekin.

kara normalizatzeko planak kultura, kirol eta aisialdiko talde eta elkarteekin lankidetzan, eta arlo horietako askotan egoera nabarmen hobetu da Koldo Pereira Udaleko Euskara batzordeburuaren esanetan. Hala ere, "badira hobetu beharreko arlo batzuk, eta horretarako herriko esparru guztiak hartuko dituen plan integral bat osatu nahi dugu. Orain

arte apurka joan gara esparru berriak hartuz, eta hau izango da esparru guztiei eragingo dien lehenengo plana".

Martxoaren 5ean hartu zuten plana diseinatzen hasteko konpromisoa Udaleko, Diputazioko eta Jaurlaritzako ordezkariak, eta urratsak aurrera doaz; ekainaren 5ean aurkeztuko dute oso bilkuren aretoan, 20:00etan.



Arrano taberna, Artatse elkarte eta beste bulego bat, enbargatuta

Batasuneko kideek prentsaurrekoan aditzera eman zuten, Arrano taberna, Artatse elkarte eta beste bulego bat enbargatu egin ditu Garzon epaileak. Esan zuten, enbarguak apirilaren 29ko data du, hau da, Batasuneko kideen aurkako operazio poliziala egin zeneko. Enbarguez gain, kontuak ere blokeatuta dituzte. Prentsaurrekoan hainbat lagun batu ziren egoera salatzen.

1936ko gerrako obusa agertu da Oxirondo plazako lanetan

MONIKA BELASTEGI

Joan den egubakoitzean, 36ko gerrako bomba bat agertu zen Oxirondo plaza eraikitze lanetan ari zirela. Hondeatzeko makinarekin lurra jasotzen ari zirela azaldu zen. Ertzaintzaren artezilariek eraman zuten.

Egubakoitzean, 09:30 aldera aurkitu zuten bomba Santa Marina elizaren atzeko aldean eraikitzen ari diren Oxirondo plazako langileek. Hondeatzeko makinarekin lurra jasotzen ari zirela azaldu dutenez, 1936ko bomba da, hau da, Espainiako gerrako obusa.

Obusa azaldu bezain pronto, Ertzaintzaren artezilariek bertaratu eta, beharrezko neurriak hartu ondoren, eraman egin zuten obusa. Iturri berberetik gehitu dutenez, lehegailuak ez ei zeu-

kan eztanda egiteko arriskurik, eta 50x10 zentimetroko neurriko zen, oso lehegailu arrunta 36ko gerrako garaian.

SARRITAN AZALTZEN EI DIREN LEHEGAILUAK

Oxirondo plazako aurkikuntza ez ei da gauza bitxia, Ertzaintzaren iturrien esanetan. Badirudi nahiko sarri agertu izan direla horrelakoak baserri inguruetan zein kalean.

Bestalde, Josuren Murgizuk emandako datuen arabera, litekeena da errepublikarrek Elgetako hilerri ondotik edo Azkonobietatik botatako obusa izatea eta helburua Fraizkozuri plaza izatea, beste toki batzuetan gordetzeaz gain, hantxe gordetzen zuten-eta erreketek gerrarako material ugari. Duela urte batzuk, Oxirondo plazako platanondo baten ere agertu zen obus bat.



Irudian, Oxirondo plazan azaldutako obusa.

EDU MENDIBIL

LABUR

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren ordainagiriak ordaintzeko epea zabalik dago

Zerga ordaintzeko borondatezko epea uztailearen 5ean amaituko da; epea amaitu ondorengo kobratzeak errekaraz izango dira. Ordaintzeko era eta lekua: ordainagiriaren ordainketa banketxeren baten helbideratuta dutenei, banketxetik bidali eta kobratuko zaie. Helbideratuta ez dutenei, berriz, datozen egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko behar den agiria. Agiri horrekin edozein banketxetan edo udal bulegoetan egin daiteke ordainketa. Argibideetarako, kontu-hartzailearen bulegotik pasa daiteke.

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA



GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8. BERGARA
Tel. 943 76 31 02

ile
apaindegia

edertze gela

disdira

Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55

iRUDI

Erloju denda
Bitxitegia

Ibargarai, 2
BERGARA
943 76 51 65



IRRINTZI kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

EDEL TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik
egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

OGIZUN koop. elk. okindegia



San Pedro 21 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

ARANTZA JAUREGI

AKUARELA
ERAKUSKETA

NAHIKARI taberna.
Masterreka 20. Bergara.
Tel. 943 76 57 71



1943KO KINTOEN AFARIA

Duela aste pare bat egin zuten afaria 1943ko kintoek, aurten 80 urte beteko dituztenek. Santa Marinaran meza entzun ostean, Sirimirira joan ziren afaltzera. Iaz, hamabi lagun elkartu ei ziren eta aurten, hamalau; izan ere, eurek esan diguten moduan, "itxuraz, urtetik urtera, gaztetuaz goaz". Hori bai, gizonezkoek bakarrik egiten dute kinto afaria, orain dela urte askotako ohiturari jarraituta. 1950eko hamarkadan hasi ziren kintadak egiten, eta urtero-urtero egiten dute. Ea, bada, datorren urtean 20 bat lagun elkartzen diren!



BIRIBILUNEA BUKATUTA

Poliki-poliki aurrera doaz Ibargarako urbanizazio lanak. Aspaldi samar egin zuten Ibargarako biribilunea, baina joan den astera arte ez dute lorategirik jarri. Oraingoan bai, benetan txukun eta dotore geratu da biribilunea. Dena dela, bitxi samarra ere bada: biribilunearen pareko lorategian olibondoak daude eta orain, palmera bat jarri dute; ez da, ez, ohikoena Euskal Herrian. Palmeraren hostoak lotuta egongo dira urtebetez, sustraiek lurra ondo hartu arte.

BERGARA KE-REN 50. URTEURRENA


Futbolaren gaineko mahai-ingurua egingo dute bihar udaletxean

Bergara KEren historiaren gaineko liburua irailaren 22an aurkeztuko dute

EDU MENDIBIL

Bergara KEren 50. urteurren-ko ospakizunak hasteko, futbolaren gaineko mahai-ingurua egingo dute bihar, zapatua, udaletxean, 19:30ean. Bestalde, elkartearen historia batzen duen liburua irailaren 22an aurkeztuko dutela esan zuten prentsaurrekoan.

Iñigo Zaitegi BKEko presidentek eta Aitor Eraña ospakizunaren batzordeko kideak urtean barrena izango diren ekitaldien berri eman zuten. Esan bezala, hasteko, futbolaren gaineko mahai-ingurua izango da bihar udaletxe osoko bilkuren aretoan, 19:30ean. Jesus Ibáñez Or-Konpon eta Bergara taldeetako atezain ohia, Jesus Irizar *Pardina* (Bergaran, Indautxun, Betisen eta Logroñesen ibilitakoa), Agustin Arantzabal *Gaztelu* (Bergarako eta Realeko jokalaria izandakoa), Julen Masach Realeko prestatzaile fisikoa eta Agustin Arantzabal Realeko jokalaria bergararra izango dira hizlari. Baliteke Realeko beste jokalariren bat ere etortzea. Moderatzaile lanetan, berriz, Iñaki De Mujika Herri Irratiko esataria ibiliko da.



Aitor Eraña eta Iñigo Zaitegi, Perta elkartean eman zuten prentsaurrekoan.

ELKARTEAREN GAINEKO LIBURUA

Elkartearen historiaren gaineko liburua irailaren 22an aurkeztuko dute. Aitor Erañak azaldu zenez, "testuak baino gehiago, argazkiak izango dira protagonista. Lan handia egin behar izan dugu materiala batzeko eta eskerak eman nahi dizkiegu, bereziki, Bixente Jauregi *Altzeta*-ri eta Udal Agiritegiari, eman diguten laguntzagatik".

Liburuaren aurkezpen egunean herri bazkaria egingo dute Lasa jatetxean, elkartetik pasatu diren jokalariekin, zuzendariekin eta langileekin. Datozen asteotan guztiekin harremanetan jartzen ahaleginduko dira antolatzaileak.

Azkenik, abuztuaren amaieran Reala eta Alaves taldeen arteko partidua Agorrosinera ekartzeko asmoa du zuzendaritzak.

TXIRRINDULARITZA

Unai Arantzabal kadetea, Zarautzen garaile

Unai Arantzabal Biciprecisión Igartua taldeko txirrindulariak kadete mailako Zarautzeko lasterketa irabazi zuen maiatzaren 11n. Berarekin zihoazen beste lau lagun atzean utzi zituen azken kilometroan Unai, eta garaipena eskuratu zuen.



FUTBOLA

Ohorezko gazte taldearen eta preferentekoaren partiduak zapatuan

Datorren urtean Euskal Ligan arituko den ohorezko gazte taldeak Martuteneren aurka jokatuko du zapatuan Ipintzan, 15:30ean. Preferente mailako taldeak, berriz, Irun 1902 taldearen bisita izango du Agorrosinen, 17:30ean.

PILOTA

Bergarak Zarautz kanporatu zuen Herri Arteko Pilota Txapelketan

Herri Arteko Txapelketan Zarautz kanporatu eta gero, Bergarak Aiaren aurka jokatuko du gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 20:00etan. Bestalde, Bergara Hiria txapelketan, amateur mailako partidu bat izango da martitzenean, 19:30ean.

GIMNASIA

Leire Lasa Euskadiko selekzioarekin eta Irati Arteaga eskolarteko Euskadiko txapelketara

Leire Lasa gimnastak Euskadiko Selekzioarekin parte hartuko du aste bukaeran Gazteen Txapelketan. Irati Arteaga, berriz, Euskadiko Eskola Arteko Txapelketan izango da Gasteizen, Gipuzkoakoan bigarrena izan eta gero.

FOTOKIROLA



Artusamak taldeak ligako finala irabazi zion Bar Ugarte taldeari

Artusamak taldeak 4-1 irabazi zion Bar Ugarte taldeari Labegaraietako Futbito Txapelketako ligako finalean. Felix Pescadorrek (2 gol), Josu Inarrak eta Mikel Alberdi *Miki*-k egin zituzten txapeladunen golak. Domekan, Artusamak eta A Ze Flaxa taldeen arteko Kopako finala jokatuko da Labegaraietan, 10:30ean. A Ze Flaxak Errotagain taldea kanporatu zuen finalerdietan.

FOTOKIROLA



Senior eskubaloi taldeak igoera lortu du

Bergara KEko senior eskubaloi taldea bigarren maila nazionalen izango da hurrengo denboraldian, zapatuan Muskiz taldeari 28-36 irabazi ondoren. Igoera ligaxkako azken partidua jokatuko dute bihar Sestaoren aurka Kiroldegian, 18:00etan.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



Argazkian, iazko aldiko saridunak. Bihar izango da sari banaketa, eguerdiko hamabietan, Zabalotegin.

GAIA/ Koldo Eleizalde Literatur Lehiaketa

Literatura Lehiaketako sari banaketa bihar, zapatua

EDU MENDIBIL

Bihar, zapatua, Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketako XVII. aldiko sari banaketa egingo dute Zabalotegiko aretoan, 12:00etan. Iazko aldiarekin konparatuta, partaidetzak gora egin du aurten eta, era berean, epaimahaiaren iritziz aurten maila hobea egon da.

Denetara, 421 lan jaso dituzte aurten Literatura Lehiaketan, hainbat mailatan. Partaidetza handien 9 eta 10 urtekoen artean izan da: 138 ipuin izan dira lehian. Alboko taulan ikus dezakezue zeintzuk izan diren aurten saritutakoak. Lehen hiru taldeko saridunek material didaktikoa jasoko dute eta 1987tik 89ra bitarteko ondoko sari hauek izango dira: lehenengoak 105 euro, bigarrenak 75 euro eta hirugarrenak, berriz, 57 euro jasoko ditu. Nagusien mailan, irabazleak 260 euro eskuratuko ditu, bigarrenak 200 euro eta hirugarrenak geratu direnendako 140 euro izango dira. Azkenik, olerkien atalean irabazi duen Agurtzane Crespo 260 euroko saria jasoko du.

MAILA HOBEA

Epaimahaiaren iritziz, "euskara aldetik eta gauzak kontatze aldetik aurreko urteetan baino maila

dezentez hobea izan da. Nagusien taldeetan, gai aldetik, beste urte batzuetan baino ugaritasun handiagoa egon da".

Saridunak

1994-95ean JAI OAK

1. Alex eta Jorge galduta. Maddi Txintxurreta Agirregabiria
2. Oilo baten bizitza. Mikel Retolaza Coranti
3. Sagutxo txikia. Borja Hernando Roman

1992-93an JAI OAK

1. Galtzagorriak eta gizakiak. Josu Mentxaka Garcia
2. Mamu zintzoa. Nahia Revilla Eiguren
3. Nire amonaren istorioak. Elena Egino Laborda

1990-91n JAI OAK

1. Oilaskoa eta azeria. Antxon Azkarate Barruso
2. Glup txikia. Markel Elkoroiribe San Vicente
3. Lore hostoa. Maddi Laskurain Iburguren

1987-88-89an JAI OAK

1. Mendekuaren taupadak. Jone Fernández Iglesias
2. Ostiral gauero. Izargi Vega Mas
3. Bizitzaren kolpeak. Irati Altuna Meabe
3. Haurtzaroko oroitzenak. Xabier Irazabal Zabala

1986an EDO AURRETIK JAI OAK (IPUINAK)

1. Muskitxuko basoa. Iker Ugalde Alberdi
2. Argitasuna iluntasunean. Maddi Iñarra Iburguren
3. Manuel burubeltzaren bizikera. Natalio Juaristi
3. Heriotzaren zaporea. Oihana Hernández

1986an EDO AURRETIK JAI OAK (OLERKIA)

1. Betiko. Agurtzane Crespo Eguren

Haurren Euskal Jaia ospatuko dute domekan Bergaran

EDU MENDIBIL

Oraingo domekan, hilaren 26an, 29. Haurren Euskal Jaia ospatuko dute Bergaran. Guztira, 400 bat dantzari batuko dira, tartean, herriko 175 lagun. Egun osoan dantzak izango dira herriko kaleetan.

Besteak beste, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Soraluze, Azkoitia, Urretxu, Gorniz, Altsasu, Antzuola eta Bergarako dantzariak izango dira domekan. Denera, 6 eta 14 urte arteko 400 bat dantzari batuko dira. Aranzadi Ikastola, San Martin Herri Eskola eta Mariaren Lagundia Ikastolako gaztetxoak eta Gazte Alai taldekoak ere ibiliko dira dantzan. Egitarauari dagokionez, 11:30ean, alkate eta alkatesa txikien ongi-etorria izango da San Martin plazan, eta 11:45ean, etorritako taldeek saioak eskainiko dituzte kaleetan. Arratsaldean, berriz,

17:00etan, dantzari guztiak kalejiran joango dira Seminariotik San Martin plazara, eta ordu erdi geroago, dantzarien alardea izango da San Martin plazan. Jaialdia 19:00ak aldera bukatuko da. Jarduneko soinu jotzaileak ere arduratuko dira giroa alaitzeaz.

HERRIKO ELKARTEEN LAGUNTZA


Bergarako ikastetxeekin batera, Xamatz dantza taldekoak ibili dira antolatzaile lanetan. Arkaitz Arana Xamatzeko kidearen hitzetan, "pena da gero eta zailtasun handiagoak ditugula dantzariak etxetara bazkaltzera eramateko. Dena dela, eskertzekoa da herriko elkarteek eskaintzen diguten laguntza".

Esan bezala, herriko 175 dantzari izango dira domekan dantzan. Arkaitzen esanetan, "neskak gehiago animatzen dira dantzan hasteko. Azkenaldian, behintzat, mutilei gero eta gehiago kostatzen zaie animatzea".



Zeramika erakusketa kultura etxean

Domekara arte egongo da ikusgai Simon Arrieta zeramika taldeak kultura etxean zabaldu duen erakusketa. Talde horretako 14 kideren lanek osatzen dute erakusketa. Astean bi egunen martitzenetan eta eguenetan izaten dituzte eskolak, Zabalotegin. Argazkian, Simon Arrieta taldeko hainbat kide Iñigo Magunazelaia irakaslearekin batera. /E.M.



Ur-bide
ITURGINZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75



IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Jendetzarik ez ibili arren, jai giroa izan da nagusi Pazkoetan

Herrian geratu direnen ahotan izan da Pazkoetan jende gutxiago ibili dela aurten. Tabernariak ere igarri dute kanpoko bisitarien kopuruak behera egin duela. Etorritakoen artean, herriz, zorro-lapurrak zoritxarreko protagonista bilakatu dira. Jasotako datuen arabera, lapurtutako 40

diru-zorro jaso dituzte Udaltzaingoa. Pazkoetan, egubakoitzean eta zapatuan, nagusiki, lapurreta ugari izan zen, tabernetan, batez ere.

Ekitaldiei dagokienez, martitzeneko herri bazkaria erabat arrakastatsua gertatu zen eta bazkalosteko giroa primerakoa izan zen. Gazte eta helduen koadrilak

elkarrekin ibili ziren kalejiran, umore ezin hobean. Bitorianatxoren igoerak amaiera eman zien jaiari martitzen gauerdian. Horrez gain, Orkestrak Golden Apple Quartet taldearekin emandako kontzertura joandakoek ikuskizunarekin gozatu zuten egubakoitzean eta barrakak, rock kontzertuak, domekako txekorketa, dantzaldiak,

sukaldaritza lehiaketak edo pilotak (martitzenean sarrera bikaina izan zen Udal Pilotalekuan) ere ikusmina piztu dute. Kaleko saltzaileak ere inoiz baino gehiago izan dira: 75. Eta orain, urtebete itxoin behar Bitorianatxo berriro ere etorri arte...

ARGAZKIAK: ANDER GILLENEA
ETA BERRIGARA

Zorro-lapurrak zoritxarreko protagonista bilakatu dira jaietan



Ohikoa denez, Bitorianatxoren jaisierak eman zien hasiera herriko jaiari. Adin askotariko jende ugari batu zen San Martin Plazan Bitorianatxo agurtzeko.



BAKAILAOA PIL-PIL ERARA Zapatuko Sukaldaritza Lehiaketara aurkeztu ziren hamasei bikoteek prestatu behar izan zuten bakailaoa pil-pil erara. Seguru guztiak oso gozoak zeudela, baina hiru onenei eman zieten saria. Irudiaren ezkerreko aldean lehenengo saria jaso zuen bikotea dago, Jaolatzela elkarteko Merte Gaztelu eta Jose Manuel Markiegi, hain justu. Bigarren saria Oilagorra elkarteko Zigor Ruiz de Eginok eta Felix Egurennek jaso zuten eta hirugarrena Gure Ametsako Donato Ormazabalek eta Pedro Ricok.



Antza nekatuta jaitzi zen Bitorianatxo, berehala eseri zen-eta alkatearen eserlekuan.



Lau egunean, pilotari onenak ikusteko aukera izan dugu Udal Pilotalekuan.



EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETA Hamabost urtetik beherakoendako Euskadiko Dantza Sueltoke Txapelketak badu bikote irabazlea: Donostiako Andrea Pozak eta Jon Agirretxek osatutakoa, hain justu ere. Bigarren, berriz, Bergarako bikote bat sailkatu zen, Ibane Basetak eta Mikel Igartuak osatzen duten bikotea. Domekan jokatu zen txapelketa: goizeko kanporaketan 17 bikotek hartu zuten parte eta horietatik, 13 sailkatu ziren arratsaldeko finalerako.



Hortzmuga antzerki taldeak umeak alaitu zituen zapatu arratsaldean.



ERREKORTADORE AUSARTENAK Pazkoetako zapatuan, Euskadiko III. Errekortadoreen Txapelketa ere jokatu zen. Bederatzi bikotek hartu zuten parte eta honako hauek izan ziren garaile: lehenengo saria Humberto eta Eloy Carcastilloko anaiek jaso zuten eta bigarren saria Bergarako bikote batek jaso zuen, Iker Agirrek eta Mikel Uribealgok osatutako bikoteak, hain justu ere. Horrez gain, Errekorte Onenaren saria Zaragozako Fernando Sanchori eman zioten.



Erraldoien alardean Bergarako sei erraldoiak dantzan ikusteko aukera izan genuen.



Zapatuan, hainbat herritarrek egin zuten bat *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean egindako manifestazioarekin.



Irazurekin eta Iturriagarekin bertso-poteo polita egon zen domekan.



Hainbat lagun hurreratu ziren domekan Salamancako nobilleroen abilezia ikustera.



"Ama!, Aita! Goazen barraketara". Zenbat aldiz entzun ote dute gurasoek hori bost egunean!



Gaztetxean ere hainbat ekitaldi egin dituzte Pazkoetan. Irudian, Dog Bite taldea.



Urtero moduan, jende ugari hurreratu da Bideberriko txosnen gunera rock kontzertuak ikustera.



Musika lasaiagoa nahiago dutenenendako, Espoioan egon da dantzarako aukera.



Urtero moduan, jantoki bihurtu zitzaigun San Martin plaza martitzen eguerdian.



Perurena aita-semeeek eta aizkolariek erakustaldi bikaina egin zuten plazan.



Koadrilako blusa bereizgarria jantzi eta kaleko festa giroarekin goatzera zihoazela harrapatu genuen honako koadrila.



Jende ugari batu zen astelehenean Espoioan, Bandaren kontzertua ikusteko.



Kaleak era guztietako postuekin bete dira Pazkoetan.



Pottoka eta txekorrek ezin hobeto pasatu zuten gazteek.



Baltsa-jaietsieran partaide gutxi, baina giro polita.



Nahiko jolastu dute umek Poligonoko jolasparkean.

E, TXO!

GUREGAIK / GAZTETXEAK

EUROPAKO GAZTEOK ETA GAZTE EUSKALDUNOK

Ez dakigu gazte euskaldunoi aplikatzeko moduko emaitzak izango diren, baina hona hemen Europar Batzordeak europar gazteen gainean egindako ikerketa baten ondorio aipagarrienak: gazteok gutxi parte hartzen dugu elkartean; informazioaren teknologia berriekiko zaletasun handia dugu; eskuzko telefonoa eta Internet gero eta gehiago erabiltzen ditugu, eta Europa-aren eraikuntzaren aldekoak ei gara. Zer, ados?

EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN XIX. BATZARRA

Datorren asteko zapatuan, ekainaren 1ean, egingo dute Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko kideek urteko batzarra. Hantxe, hurrengo bi urteetarako lehentasunak eta lan ildoak jasotzen dituen Kudeaketa Plana eztabaidatuko dute, eta baita zuzendaritza talde berria aukeratu ere. Beraz, laster izango dugu kudeaketa plan horrek eman duenaren berri gehiago.

BIHAR, ZAPATUA, HASIKO DIRA GAZTETXOEN II. OLINPIADAK

Bihar, maiatzak 25, hasi eta ekainaren 22ra arte zapatu arratsaldero izango dira Jardunek bigarren aldiz antolatuta dituen gaztetxoen arteko olinpiadak.

Lau, bost eta seigarren mailako bederatzitaletan, 87 gaztetxok guztira, eman dute izena olinpiadetan parte hartzeko. Sukaldaritza, errelebu, hockey eta beste hainbat jokotan aritu beharko dira parte hartzaileak.

'Baskontainer' gazteen aldizkari berria, kalean

AINTZANE IRIZAR

Gipuzkoako Gazte Batzarren Koordinadorak aldizkari berria jarri du kalean: *Baskontainer*, hain zuzen ere. Udaberrirako kaleratu dute lehen zenbakia eta gazteekin lotutako gai ugari jorratu dituzte.

Lehendabiziko *Baskontainer* horretako gai nagusia okupazioa da. Horrela, okupazioaren gaineko historiaren laburpena azaltzen digute erreportaje baten. Baina hori baino harantzago doa *Baskontainer* okupazioaren gaiarekin: *Okupatzeko eskuliburua* izenburupean, etxe bat okupatu nahi dutenendako hainbat aholku ere ematen dituzte-eta.

Okupazioaz gain, emakumearen egoeraren gaineko artikulu bat, zentral eolikoaren gaineko erreportajea, Palestinaren gainekoa edo desobedientziari buruzkoa irakur genitzake.

Azkenik, Gipuzkoako gazte batzarren eta gaztetxeen informazioa topa dezakegu aldizkarian. Gainera, nahi duten guztiek parte har dezakete aldizkari horretan, euren artikulu, iritzi, komiki edo gutunen bitartez. Horretarako, Bergarako Gazte Asanbladako kideekin jar zaitzekete harremanetan, gaztetxean bertan.

Baskontainer aldizkaria eskuratu nahi baldin baduzue, Bergarako gaztetxera jo dezakezue, eta hantxe topatuko duzue.



Udaberrirako kaleratu zuten lehen zenbakia.

LOTSABARIK / Saioa Sasiain

"Faltsukeriak amorratu egiten nau"

AINTZANE IRIZAR

Ez dakigu Saioari zer gustatzen zaion gehiago: Reala animatzea edo abestea. Bi horiek dira bere zaletasunak. Jokatu berri den Euskal Kantuen Txapelketan parte hartu du, Maitane bere lagunarekin.

- Txikitan, zer izan nahi zenuen?
Garai baten astronauta izan nahi nuela esaten nuen, denon antzera; gero, abokatua ere bai.
- Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?
Gustuko zerbaitetan lanean egotea espero dut, erizain moduan, esate baterako. Eta baka-

- rrik edo mutil lagunarekin bizi izaten, baina ezkontzeke.
- Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?
Momentua bizi izateko.
- Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.
Ez daukat horrelako taktikarik, ez dakit zela egiten duten, baina gauza guztietaz enteratzen dira.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?
Lagunei eta familiari.
- Zure bertute bat?
Oso alai naizela, eta lagunei entzuten dakidala.
- Eta hutsune bat?
Jenio bizikoa naizela; ni haserretzen naizenean...

- Zerk amorratzen zaitu?
Uf! Hainbeste gauzak amorratzen naute! Adibidez, faltsukeriak; jendea atzetik gaizki esaka ibiltzeak.
- Zure gorputzeko atalik gustukoena?
Zerbait esatearren, begiak.
- Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?
Hasieran, denok bezala, fisikoan, eta batez ere, begiradan; baina garrantzia handia ematen diot izaerari.
- Zer egiten duzu seduzitzeko?
Ezer ere ez; ez naiz batere probokatzailea.
- Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?
Ez daukat fantasiarik.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoa • ZALETASUNAK: Abestea eta futbola • LIBURU BAT: "Ostiralak", Jon Arretxerena
FILM BAT: Blade • MUSIKA TALDEA: E.H. Sukarra • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA / Bittor Rodríguez





BERGARA
Ander Lasa
Maiatzaren 28an 2 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Jabi Garmendia
Maiatzaren 24an 37
urte. Urte askotarako
aita! Paki eta Markel.



BERGARA
Nekane Muñoz
Maiatzaren 24an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Gaizka Urzelai
Maiatzaren 31n 10 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, Danel eta Oier.



BERGARA
Danel Urzelai
Maiatzaren 25ean 7 urte.
Zorionak! Gurasoak,
Gaizka eta Oier.



BERGARA
Josune Agirre
Maiatzaren 20an 2 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
aitona-amonak.



BERGARA
Eider Najera
Maiatzaren 23an
urtebete. Urte
askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Xabier Beistegi
Maiatzaren 19an 27
urte. Urte askotarako!
Koadrilakoak.



ELGETA
Hiart Bolinaga
Maiatzaren 10ean 13
urte. Urte askotarako!
Lagunak.



BERGARA
Patxi Larrañaga
Maiatzaren 17an 60 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Joseba Larrañaga
Maiatzaren 21ean 29
urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ana Etzaniz
Maiatzaren 29an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Mikel.



BERGARA
Miren Urrea
Maiatzaren 24an 3 urte.
Urte askotarako!
Jone eta etxeokak.



BERGARA
Manex Bengoa
Maiatzaren 25ean 4 urte.
Urte askotarako!
Maddi.

BABESLEA

Raizabal

Artekalea 9
Tel. 943 76 11 83

Bidekurutzeta 20-22
Tel. 943 76 12 19

**Urtebetetze
tarta**

zuk nahi duzun
**argazkiarekin
eta formarekin!**

Eta agur-afarietarako tartak

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxungo

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARAREN agertu ondoren. / Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**TELEIXA
BILTEGIAK**

**Eraikuntza
materialak**

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

AGOITZ
tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

**DEBA
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behe
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**KONDE
PANADEROKUA**



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein lekutan jarri zuten plaka hau iaz, maiatzean?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Palmondoa

Phoenix canariensis

MAITANE ARIZABALETA


Hogei metro har dezakeen *palmaceae* familiako palmondoa. Zazpi metroko hosto luze eta berdeak ditu eta lore arrek krema kolorea dute eta emeek, aldiz, horia. Fruitua obalatu da, eta fruituaren kolorea marroitik purpura koloreraino joan daiteke; fruitu haragitsua da, eta gozo zaporekoa.

Jatorriz Kanarietako da, eta datil-palmondoarekin alderatuta, Kanarietako palmondoak eitea baxuagoa eta lodiagoa dauka, hosto kopuru handiagoa du eta datilen tamaina txikiagoa da.

Hotza ondo jasan arren, kosta epeletan hobeto bizi da. Lur motarekin ez du preferentziarik eta lehorteak ere ondo jasaten ditu. Kanarietan *Guarano* izeneko almibarra ateratzen dute, *Miel de palmera* delakoa.

Palmondo mota hori, batik bat, kostako herrietako pasealekuetan egon ohi da, baina barneko herrietan ere aurki genezake apaingarri gisa. Esaterako, Bergaran, Ibargaraiko biribilunean bi urtean ezer egin barik egon ondoren, astebetean lorategia egin dute, eta palmondo mota horretako ale handi bat jarri dute han.

“Hotza ondo jasaten duen arren, kosta epeletan hobeto bizi palmondo kanariarra”



ARGAZKILARIA

GALDEDEBALDE

1.

Zein urtetan ireki zituzten Bergarako Udal Igerilekuak?

- A/ 1976an.
- B/ 1968an.
- C/ 1970ean.

2.

Udalak antolatutako literatur lehiaketak bergarar ospetsu baten izena darama. Norena?

- A/ Justo Garate.
- B/ Boni Laskurain.
- C/ Koldo Eleizalde.

3.

Artusamak taldeak zeini irabazi zion Labegarietako ligako finala?

- A/ Bar Ugarte.
- B/ A Ze Flaxa.
- C/ Komando Piperrak.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IMANOL ZALAKAINendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Imanol! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Mizpildi kalean eta Madalena eta Ariznoa plazak / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA


Koipesol ekilore olioä

Litro bateko botila.

1,19 €

198 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorenzo 1. Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 24a / 114. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Asteleheneretik aurrera EHNA eskatu ahal izango dugu herriko udaletxean

AINZANE IRIZAR

Maiatzaren 2ko osoko bilkuran onartu zuen Antzuolako Udalak Euskal Herriko Naziotasun Aitormena tramitatzea. Hartutako erabakia abian jarriko dute orain, eta datorren asteleheneretik aurrera EHNA eskatzeko aukera izango dute antzuolarrek udaletxean.

Antzuolako Bai Euskal Herriari taldeak aurkeztutako mozioari baietza eman zion udalbatzarrak maiatzeko osoko bilkuran. Mozio horretan Udalak EHNA tramitatzea eskatzen zuen talde horrek.

Behin mozioa onartuta, datorren astelehenera, maiatzaren 27an, hasiko da Udala tramitazio lana egiten. Udalaren zeregina izango da herritarrei eskaera orriak eskaini eta Udalbiltzarekin bitartekari lanak egitea.

Udalbiltzak ekimen horrekin duen helburua da "euskaldunok geure naziotasuna aitortzea".

EHNA EGITEKO BETEBEHARRAK

Nortasun-agiri neurriko hiru argazki eta errolda-agiria aurkeztu beharko dituzte udaletxean EHNA egin nahi dutenek. 12



Naziotasun Aitormenarekin batera, argazkikoa bezalako txartela bidaliko dute Udalbiltzatik.

euro ordaindu behar dira agiria- ren truke. 14 urtetik beherakoek familia liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko dute. Ezinduek, berriz, medikuaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Behin eskaera eginda, Udalbiltzari helaraziko dizkio Udalak eskaerok. Udalbiltzatik aitormena bera eta txartel txikiago bat bidaliko dituzte. Eskaerak udaletxeko idazkaritzan egin behar

dira, maiatzean, honako ordutegian: goizez, 08:30etik 13:00etara eta arratsaldean, 14:30etik 17:00etara. Ekainetik aurrera, berriz, 08:00etatik 15:00etara egongo da zabalik idazkaritza.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Irakeko eta Senegalgo argazkien erakusketa egongo da asteburuan, Anelkarrek antolatuta

AINZANE IRIZAR

Gaur, egubakoitza, zabalduko dute argazki erakusketa, eta domekara arte egongo da ikusgai Olaran etxean. Irakeko eta Senegalgo argazkiak jarriko dituzte hantxe. Bide batez, Senegalera bidaltzeko arropak eta eskolarako materiala batuko dituzte.

Acción Verapaz gobernuz kanpoko erakundearekin harremanetan jarri ziren Anelkarreko kideak, eta horrelaxe ekarri dute

Irakeko argazkien erakusketa Antzuolara. Iaz, maiatzean, egon ziren Acción Verapazeko hainbat kide hantxe, Irakeko V. Kristau Konferentzian. Bidaia hura aprobetxatuz, irakiarren egoera gertutik bizi nahi izan zuten. Horretarako, hango domingotarrekin eta hainbat erakunderekin harremanak izan zituzten, baita asteburuan ikusi ahal izango ditugun argazkiak atera ere.

Erakusketa horrekin lotuta, atzo, eguna, hitzaldia egin zuen Acción Verapazeko kide Jose Antonio Lobok. Irak gaur: erru-

gabeen sufrimendua izenburupean egin zuen hitzaldi hori Lobok eguen arratsaldean. Horrela, Iraken ikusi eta entzundakoen gaineko esperientzia kontatu zuen Jose Antonio Lobok.

SENEGALGO ARGAZKIAK ERE IKUSGAI

Iaz, Elkartasun Egunean batuta-ko diruarekin, Senegalgo Casamance herrirako generadore bat erosi zuten Anelkarrekoek. Euren esanetan, oso erantzun positiboa jaso zuten herritarrengandik. Orain, Iraken gaineko erakusketarekin batera, Casamancera

generadorea iritsi zen eguneko argazkiak jarriko dituzte Olaran etxean, herritarrek ikus dezaten zer egin zuten egun hartan batuta-ko diruarekin.

Bide batez, Casamancera bidaltzeko udako arropak, izarrak eta eskolako materiala jasotzeko mahaia jarriko dute Anelkarrekoek Olaranen bertan, erakusketaren egun eta ordutegi berarekin.

Bestalde, Bidezko Merkataritzako produktuak salgai jarriko dituzte Antzuolako Elkartasun Taldekoek oraino asteburuan.

LABUR

Bizi Testamentuen Udal Erregistroa zabalduko dute

Maiatzaren 31n jarriko du abian Udalak Bizi Testamentuen Udal Erregistroa. Horren oinarri ideologikoa da duintasunez hiltzeko eskubidea babestea. Horrela, gaixotasun larriren bat izatekotan bere nahia zein den azaldu ahal izango du edozein herritarrek idatzi baten bitartez.

Udalaren zeregina notario eta gordailuzainarena izango da; eskatzaileak aurkeztutako agiri idatziaren zainatzaile izango da, hortaz, Antzuolako Udala.

Musikari gazteen kontzertua maiatzaren 31n

Datorren asteko egubakoitzean, maiatzaren 31n, hain zuzen ere, herriko eta Bergarako musikari gazteek kontzertua eskainiko dute Errukizko Amaren parrokiari, 19:30eko mezaren ostean, 20:00ak aldera.

Batetik, Bergarako Orkestra Gaztea arituko zaigu; Usoa Toledo antzuolarrak biolina jotzen du orkestra horretan.

Eta gero, Bergarako Musika Eskolan ikasten dabiltzan Antzuolako 30 bat gaztetxok osatutako koroaren emanaldia izango dugu.

Antzuola-Donostia ibilaldia antolatu dute Arrolakoek

Datorren asteko zapatarrako (ekainak 1) antolatu dute Arrolakoek Antzuolatik Donostiarako ibilaldia.

Goizeko bostak aldera irtengo dira Antzuolatik. 13 bat orduko ibilaldia izango da, luzeegia askorendako. Horregatik, ibilaldiaren erdia egiteko aukera egongo da. Informazio gehiago Arrolakoek eurek emango dizuzte martitzenean, hilaren 28an, izena ematerakoan; 19:00etatik 20:00etara izango da hori.

Jende ugari parte hartu zuen zapatuan San Isidroko azokan eta ospakizunetan

AINTZANE IRIZAR

Egubakoitzeko euri zaparradak ikusita, eskertzekoa izan zen zapatuan ateri egotea.

Horrek animatuta-edo, jende mordo batu zen plaza inguruan. Ganaduak, artisauek, bertsolariak... denetarik izan genuen zapatu goizean.


Eguerdi aldera, Kukumarro Lehiaketako eta Patxiko Txerren ipuingintzako sariak banatu zituzten. Kukumarro Lehiaketan Ascensio Laskurainen taldeak irabazi zuen erretiratuen mailan. Umeei dagokienez, denek irabazi zuten sariren bat, eta 12 urtetik gorakoen artean, Oier Peñagarikanoren taldeak irabazi zuen Kukumarro Lehiaketa.

Patxiko Txerren lehiaketan, berriz, zazpi sari banatu zituzten; hona hemen irabazleak: Garoa Manzidor, Aitor Kortabarria, Andoni Narbáez, Lide Toledo, Garazi Beitia, Miren Aranguren eta Andoni García. Saritutako ipuinak liburu baten batu dituzte eta mahi duenak liburutegian dauka eskuragarri. Gainerako parte hartzaileen ipuinak ere koadernatu egin dituzte eta liburutegian daude.

Sariak banatu ostean, bertsolarien txanda izan zen. Amets Arzallus eta Ainhoa Agirreazaldegiren bertsoez gozatzeko aukera izan zuten plazan batu zirenek.



Eskulangileak, euren lanak saltzeaz gain, fin ibili ziren lanean.




Azokan egon ziren ganadu guztiak Antzuolako baserrietakoak ziren.



Umeak ere pozik ibili ziren, posturik postu.




Zazpi sari banatu zituzten Patxiko Txerren ipuingintzan.



Saio polita egin zuten Ainhoa eta Amets.



Ascensio Laskurain, Kukumarro Lehiaketako irabazleak bat.



Oier Peñagarikanoren taldeak irabazi zuen Kukumarro Lehiaketako sarietako bat.



**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



Juan Cruz
ARGAZKIAK

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko maiatzaren 24a / 99. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Babes ofizialeko 20 etxebizitza eraikiko dituzte Torrealdean

OXEL EROSTARBE

Momentuz, 82 lagunek eman dute izena Elgetan etxebizitza erosteko interesa zutenendako Udalak zabaldu zuen zerrendan. Datorren astelehenean, Hirigintza batzordean, Torrealdean eraikiko dituzten etxebizitzien gainean jardungo dute Udaleko ordezkariak.

Torrealdea inguruan 76 etxebizitza egiteko asmoa dauka Elgetako Udalak. Hasiera baten, horietatik, 32 babes ofizialeko etxebizitzak izan behar ziren. Lurrak berriro sailkatzean, ordea, babes ofizialekoak 24 izatea onartu zuen Elgetako Udalak. Baina egokitze batzuk direla eta, azkenean, seguruenerik, 20 etxebizitza izango dira babes ofizialekoak. Etxebizitzak eraikiko dituzten lurren jabeek promotore batekin dihardute guztia lotzen eta urtea amaitu aurretik eraikitze lanekin hasteko asmoa ei daukate.

Elgetako Udalaren asmoa zen PERIa martxoan onartzea, babes ofizialeko zenbat etxebizitza egingo dituzten eta horien kokalekua zehazteko. Datorren astelehenean, Hirigintza batzordean, PERIa



Seguraski, lehenengo fasean eraikiko diren etxebizitzien artean hamabi izango dira Babes Ofizialekoak

onartzea da Elgetako Udalaren asmoa. Gero, udalbatzak onartu beharko du, proiektua Diputaziora bidali aurretik.

PERIan proposatuko dute

babes ofizialeko 20 etxebizitza eraikitzea. Bi bloketan banatuko dituzte, seguruenerik. Hamabi gaur egunean bertan dauden etxebizitzien atzealdean kokatuko dira

eta zortzi, Aiako eraikuntza dagoen lekuaren parean. Seguruenerik, etxebizitza horiek bi fasetan eraikiko dituzte. Lehenengo, hamabi eta aurrerago, zortzi.

HERRITARREN HITZA / Alberto Telleria • Badiharduguko kidea

Badihardugu bertako euskeria pixkanaka bultzatzen

Ekañaren lian Elgetan egingo dira zenbait ekitaldi Euskalkixaren inguruan, honen egunonen antolaketia aurrera eruateko alkarrekin dabiz biharriari Badihardugu Euskera Alkartia eta Elgetako Goibeko Kultura Elkartia.

Badihardugu 2000ko azaruan sortu zan, eta Elgetako Udalak, Deba baillarako gainontzekuekin batera, hitzarmena sinatu eban laguntza instituzionala emetoko taldiari. Orduan ba taldiak babes osua daka hasi Mutrikun eta Gatzaga arteko herri danena. Baiña horrek udalok

zeri emon dotse babesa? Hain zuzen be Badihardugu sortu zanian taldiak markautako helburrei: herrietako berbetak, gehixen bat ahozkoa, indartzia eta erabillera bultzatzia; gure euskalkixaren osasuna hobetzia askotan dakaguzen komplejuak eta lotsak baztartuta (kanpokua ez da etxekua baiño hobia, baiña eskolan ikasi edo telebistan ikusten danez, beti be



“Herriko berbeten alde egittia ez da euskara batuaren kontra egotia”

prestijio haundixaua eukitzen dau eta etxekua alde batera lagatzen dogu txarragua dalakuan).

Badiharduguk argi dauka herriko berbeten alde egittia ez dala euskara batuaren kontra egittia. Euskara batua gure hizkuntza nazionala da eta euskara batuaren inguruan sortu dira, Euskal Herri osuan ikusi, entzun edo irakurri leikezen hedabidiak, Elgetako

edo Mauleko batek ondo ulertzeko hizkuntza batian. Herriko berbetek eta euskara batuak bakotzak bere esparrua dauka, kontua da: noiz, nun eta zer erabili. Oso garbi daukan beste gauza bat zera da, herrietako berbetak erabilli eta ondo ezagutzia euskara batuarendako osasungarria dala.

Gura neuke elgetarrok hor egunetan parte hartzia. Batez be, gazte jentia antolatuta dakazen taldiak (kiroletakuak, gaztetxia...), gehixen bat, hizkuntza barrikuntzak gazteiangan emon direlako, eta eurok direlako herri berbetiei eutsiko dotsenak.

LABUR

Lehenengo jaunartzeak izango dira domekan

Eguerdiko hamabietan izango den mezan lehenengo jaunartzea hartuko dute herriko hamaika neska-mutikok.

Lehen jaunartzea egingo duten neska-mutikoak hauek izango dira: Ibon Untzetabarrerenetxea, nora Ugarteburu, Garaine Txurruka, Oskar Sarasua, Koldo Olaortua, Iñaki Olaortua, Adrian Gorostiza, Ander Gorosabel, Mikel Beretxinaga, Leire Azkarraga eta Ainara Arantzeta.

Neska-mutikoendako egun berezia izango da.

GOIBEKOKALEko afarirako txartelak herriko tabernetan

Datorren zapatuan, GOIBEKOKALEk 100 ale egingo dituela eta, Goibeko Kultura Elkarteak afaria antolatu du. Afarirako txartelak 12 euro balio dute eta herriko tabernetan guztietan daude salgai.

Afaria gaueko bederatzietan izango da, Espaloian, eta gero, erromeria izango da Tapia eta Leturiarekin. Afarirako txartelak hartzeko azken eguna, maiatzaren 28a.

Arratsaldean, umeendako Mari sorgin antzezlanaren izango da Espaloian.

Euskal Herriko Mendi Federazioak batzarra egingo du

Iaz bezala, aurtan ere Euskal Herriko Mendi Federazioak Batzar Orokorra egingo du Elgetan. Batzarra ekainaren leian izango da, 09:30ean. Hantxe izango dira Mendi Federazioko presidente Antxon Bandres eta hainbat mendi taldetako ordezkariak. Guztira, 100 ordezkari baino gehiago batuko dira Elgetan egingo duten batzarrean.

Duela bi urte Elgetan egingo dako batzarrean aukeratu zuten Antxon Bandres Mendi Federazioko presidente.

ELKARRIZKETA

XABIER UBERA/ EUSKADIKO PILOTA SELEKZIORAKO HAUTATUA

“Ez doskue lagako Mundialian parte hartzen”

O.E.

Zenbait astean proba batzuk egin ostean, txapelketa batzuetan parte hartzeko dei egin dio Euskadiko Selekzioak Xabier Uberari. Venezuelara, San Frantziskora eta Kubara joango da, seguruenik. Laster jakingo du noiz.

Entrenamendu batzuetan parte hartu eta gero, Euskadiko Selekziñoko partaide izateko hautatu zaittue?

Aurreko hillaletan, zazpi bat konbokatorixatan 25 pelotari inguru ibilli gara probak egiten. Eta horreitatik, seiri, behin-behineko selekziño ofizialerako deitu gaittue. Sorrarain, Bengoetxea, Solozabal, Antxia II.a, Eguzkiza eta seirotz aurreko astian ekin zotsagun entrenamenduei. Banaka baiño, biñaka hobeto moldatzen zara. Zein modutan jokatzeko hautatu zaittue?


Hautatzailliak, Kepa Arrota jauregik, esan zostanez, neu biñaka jokatzeko hautatu nabe. Sorrarain eta bixok izango gara aurre-

kaldian jokatu dogunok. Euskadiko Selekziñuakin zein txapelketatan hartuko dozue parte?

Momentuz, martitzeno entrenatzen dogu frontoian. Horrek entrenamenduok egin eta gero, Venezuelara eta San Frantziskora juateko asmua dago. Aurrerago, Kubara juango gara, seguruenik, eta han Amerikaren kontra lehiatuko gara. Ameriketako selekziñuak Mundiala gertatzen dabiz eta bide horretan lehiatuko gara alkarren kontra. Gertatzen da batzuri ez dotsela gure kontra jokatzeko lagatzen. Mundiala be hortxe dago, baiña zailla izango da guri bertan parte hartzen lagatzia.

Aurten, Nafarruan izango da pilotako mundiala. Esan dozun moduan, zailla izango da Euskadiko Selekziñuak bertan parte hartzia.

Eziñezkua izango dala pentsatzen dot. Euskaldunok gure selekziñuak Mundialian parte hartu deilla nahi dogula behin eta berriro argi azaldu dogun arren, azken hitza beste batzuk dauke. Lehenago Mundialian izan



O.E.

ziñan. Oinguan, Euskadiko Selekziñuan izango zara. Eta Mundialera juateko aukera etortzen bada?

Lehenengo, Euskadiko Selekziñuak deitu dosta eta aukeria egindda dago. Neu Euskal Herriko Selekziñuaren alde nago eta

txapelketa guztietan lehiatzen ikusi gura neuke. Kontua da, pelotarixok eta kirolarixok gure selekziñuaren alde gabela pentsatzen doten arren, pausuak beste batzuek emon bihar dittuela ikusten dotela. Gizartiak eskatzen dabena entzun eta kirolek kanpora darenak emon bihar dittue Selekziño Ofiziala lortzeko eman biharreko pausuak.

Elgetako Lau t'erdiko Txapelketan finalurrekoetara heldu ziñan iaz. Laster hasiko zara txapelketa horretan lehiatzen, zer moduz ikusten dozu aurteguan zeure burua?

Herrixan jokatzia beti da berezixa eta ahal doten onduen egiten saiatuko naiz. Hala eta be, kostauko jata; izan be, eskuetan arazo askokin nabil eta ezin izan dot aurtengo txapelketia neuk nahiko neban moduan gertatu. Datorren astian hasiko naiz jokatzela... Ia zer egiten dogun. Profesionalerako saltua, noizko?

Oin momentuan, ez nago horretan pentsatzen; egunero kuakin nahikua daukat.

ARETO FUTBOLA

PARTIDUAK

- 15:00: Arineketan-Vicios.
Chievo.
- 16:00: Chievo-Komando Piperrak.
Arineketan
- 17:00: Bar El Arco-MTS.
La Kokotxa
- 18:00: La Kokotxa-Txapela.
MTS

EMAITZAK

- Txapela-Chievo..... 13-3
- Bar El Arco-La Kokotxa..... 6-1
- Splas-Komando Piperrak..... 9-6
- MTS-Arineketan..... 2-7

SAILKAPENA

Taldea	P	J
1. Arineketan	7	4
2. Bar El Arco	6	4
3. Vicios	5	3
4. Txapela	4	3
5. Splas	4	4
6. Chievo	4	4
7. MTS	3	3
8. Komando Piperrak	0	3
9. La Kokotxa	0	4



Debabarreneko erretiratuekin bazkaria

Aurreko barikuan bazkaria egin zuten Ozkarbi Elkarte-an Elgetako eta Debabarreneko herrietako erretiratu elkarteetako bazkideek.

Eibarko, Elgoibarko, Mendaroko, Mutrikuko eta Debako erretiratu elkarteetako bazkideak urtero etortzen dira Elgetara bazkaltzera. Aurten ere Elgetako Erretiratu Elkarteetako bazkari goxoa gertatu zuten. Denera; 50 lagun inguru batu ziren eta denek esan ziguten oso ondo pasatzen zihardutela. /O.E.

LABUR

Aurten ere Pala Txapelketa Elgetan jokatu da

Mankomunitateko Kirol Zerbitzuek antolatu duten Pala Txapelketan izena emateko epea ekainaren 3an amaituko da. Debagoieneko Kirol Zerbitzuetako abonatuak 12 eta gainerakoek 15 euro ordaindu beharko dituzte izena ematerakoan. Partidu guztiak Elgetako pilotalekuan jokatu dituzte, zapatu goizetan

Txapelketa liga eran jokatu dute hasieran, eta aurreneko postuetan geratzen direnek elkarren aurka jokatu dituzte finalurrekoak.

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale

BOLATOKI
taberna·jatetxea



- Astean zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu bereziak eta sagardotegiko menua
- Pintxoak, ogitartekoak eta errazioak

Artekale 2, Elgeta. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

Basuras taldea,
futbitoko
txapelkun Elgetan

Izango dira hamar bat urte futbitoko txapelketia kiroldegiko kantxan jokatzeko dala. Aurretik, eta urte morduan, gainera frontoian jokatu izan zan hori txapelketiori. Gaurkuan, orduko erretratu bat ekarri dogu. Oin dala hamabost urte ingurukua da eta hor urteko sari banaketakua da.

Hor urtian, erretratuan agertzen diran umiek irabazi zebeu umien txapelketia. Taldiai jarri zotzen izena be asko pentsau eta gero ipiñitakua ei da. Izan be, Basuras ei zeukan euren taldiak izena.

Pelota partiduetara moduan, futbito partiduak ikustera be jente ugari gerturatzen zan herriko frontoira. Herriko kuadrilla gehixenak parte hartzen zebeu eta giro paregabia egoten zan. Urtaik igaro ahala, hori giruori galduz juan da eta, gaur egunian, herriko bi taldek bakarrik dihardue futbito txapelketan.

Honek mutikuonek agertzen dira erretratuan, ezkerretik eskumara: Josu Askasibar, Iñaki Egizabal, Haritz



Gallastegi, Iñaki Askasibar, Oskar Askasibar, Iban Retolaza, Aitor Ubera eta Gabriel Alonso.

Atzekaldian Patxi Basauri, Jabier Arantzeta eta Fernando Zenitagoia be ikusi geinkez, sarixak emoten.

Argazkia: Iban Retolaza

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Elgetako
hiltegi
zaharra

Gaurkuan, lehenaguko hiltegiako erretratua ekarri dotsuegu hona atalera. Gaur egunian Ostatu jatetxiaren onduan dagon aparkalekuan zeguan orduan hiltegiak. Herritarrek Elorri-xora bideko hiltegi barrixa eraiki zebeu arte, sarrittan erabilli zebeu hori hiltegi-xori. Hiltegi barrixa be bota zebeu, eta gaur egunian, herrixan ez daukagu hiltegirik.



1958

Hiltegiak nahiko egoera txarrian dagola ikusi geinke ondoko erretratuan. Ordu-rako, makina bat bidar erabilli zebeu herritarrek.



2002

Gaur egunian, aparkalekua dago lehenaguko hiltegiak zeuan lekuan. Bertatik egingo ei dabe Torre-aldeko etxebizitzetara juateko bidia.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Zuri Beltz
margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
- Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

BERGARAN
BULEGO BERRIA

KOROSTI
INMOBILIARIA

BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

INSTRUMENTUAK

Piano
Akordeioa
Trikitixa
Gitarra
Txistua
Kantua
Perkusioa
Bonbardinoa
Tuba
Tronboia
Fagota
Biolina
Biola
Biolontxelo
Kontrabaxua
Saxofoia
Oboea
Klarineta
Flauta
Tronpeta
Tronpa
Panderoa
Alboka

TALDE MUSIKALAK

Abesbatza
Gazte banda
Orkestra sinfonikoa
Akordeoi orkestra
Ganbara taldeak

BESTE IKASGAIK

Aurre-hizkuntza musikala
(5 urtetik aurrera)
Hizkuntza musikala
Armonia
Korala
Biolina: Suzuki Metodoa
(3 urtetik aurrera)

Bergarako Musika Eskola 2002/03 ikasturtea

MATRIKULA ZABALIK

ekainaren 28ra arte

Hiru urte baino gehiago dituen edonor matrikula daiteke.

Eta hamabost urte baino gehiago badituzu eta instrumenturen bat ikasi nahi baduzu ere, badaukazu aukera! Nahiz eta musikaz ezer ez jakin!



KONTZERTUAK

Ekainaren 4tik
21era bitartean,
instrumentuen
eta taldeen
kontzertuak

Musika Eskolan
bertan eta
Zabalotegiko
aretoan eta
Frontoian



**ARGIBIDE
GEHIAGO:**
Musika Eskola
Tf.: 943 76 57 80
Bulego ordutegia:
15:30-19:30

MULTIOPTICAS

LARRAÑAGA



GAES

ENTZUMEN ZENTRUA

GORTASUNA PREBENITZEKO JARDUNALDIK

Maiatzaren 27tik Ekainaren 1era

Azterketa Doan

espezialista batek entzumen azterketa egingo dizu



Dimentsio txikiak,
prestakuntza handiak,
ikustezina

Barne kanalak,
Audiozoom digital
moldagarriarekin,
teknologia berritzailea



Potentzia handiagoa duten
retroaurikularrak,
diseinu teknologikoa,
erabiltzeko eroso,
sendoa



Sukaldeen berritzea.

Bainugelen berritzea.

Zeramikan azken berrikuntzak.

Jakinan gremio guztiak eskaini eta koordinatzen dizkizuegu.

Jakina, zurekin pentsatzen.



JAKINA

BAINUGELAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK
Bergarako FAGOR banatzaile bakarra

FAGOR 
Sukaldeko altzariak

AENOR
Produktu
zertifikatua

6
URTEKO
GARANTIA

San Lorenzo Industri Pol., Amillaga 10. BERGARA.
Tel.: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.